

## ILLERRI-DONEETAKO OBIZDE BATZUEK.

---

*Redemptor meus vivit. (Job. 19-15).*

*Nere Berteroslea bizi da. (id.)*

Nere Erosle ta Salbatzallea  
Bizi da beti-izateko:  
Berea naiz ni; ill-arren, berak  
Zeruan nau ni gordeko.



*Lætitia sempiterna super capita eorum. (Isaías. 51-II).*

*Betiraunde-alegriya beren buruben-gañean. (id.)*

¡Zér zoriona kristau-leialak  
Jesús-gandikanartzean,  
Beti-betiko koroi ta atsegin  
Beren-buruben-gañean!



*Regnum celorum vim palitur. (Math. II-12).*

*Zerubetan erreñatzeko indar egiten bear da. (id.)*

Ernai-gabiltzan beti  
Jaunaren grazian,  
Gure griñā charrakiñ  
Gerra-chit-bizian,  
Zeruko erreñura  
Irichi gaitian.



*Pro defunctis exorare. (II Machab. 12-46).*

*Erregutu ill-ziranakgatik. (id.)*

Purgategiko animak  
Biziro penatuak  
Dagoitzue deadarka,  
Kristau-errukitsuak,  
Egiteko aien alde  
Damu-lan ta erreguak.

JOSÉ IGNACIO ARANA-KOAK.

